



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Prentsa-oharra: 2008ko azaroaren 11n

2009. URTEKO BIZKAIKO AURREKONTUEN PROIEKTUARI ZUZENKETA-ESKEAK AURKEZTEKO EPEA ZABALDU DA

Datorren azaroaren 28an amaitzen da

2009. urteko Bizkaiko Aurrekontuen Proiektuaren tramitea aurrera doa Bizkaiko Batzar Nagusietan. Behin Foru Diputatu guztiak etorri ondoren Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordera bakotxa bere Sailaren aurrekontua azaltzeko, Batzar Nagusietako Mahaiak Aurrekontuen Proiektuari zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea erabagi dau; epe hori bihar, azaroaren 12an, hasi eta datorren azaroaren 28an amaituko da, eguerdiko 13:30etan.

2009. urteko Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontuak onartzeko bideraketea Aurrekontuen Proiektuaren aurkezpenagaz hasi zan. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariari, Ana Madariaga andreari, igorri eutsan Proiektua, foru-legebatzarrean bideratu ahal izateko.

Batzar Nagusietan egin beharreko ibilbideari hasierea emon jakon joandako azaroren 6tik aurrera, orduan hasi ziran-eta argipidetarako batzordeen bilerak. Hiru egunean zehar Foru Diputatuak batzorderatu dira 2009. urteko Bizkaiko Aurrekontuen Proiektuaren gora-beherak azaltzeko, bakotxak bere Sailari jagokonetan, urtero egiten dan moduan, zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaldu baino lehenago.

Behin zuzenketa-eskeak aurkeztuta —horretarako epea azaroaren 28an amaitzen da—, Batzar Nagusietako Mahaiak aztertu egin beharko ditu, ikusteko zeintzuk diran osotasunezko zuzenketa-eskeak eta zeintzuk ez. Hurrengo, Osoko Batzarrerako deia egingo dau, osotasunezko zat jotako zuzenketez eztabaidatzeko. Batzar Nagusi hori eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

gero, beste zuzenketa-eskeak eztabaidatuko dira, lehenengo Ogasun eta Finantzetako Batzordean eta gero Osoko Batzarrean, eta seguruenik abenduaren amaiera aldera egingo dan azken Batzar Nagusi horregaz amaituko da Aurrekontuen Proiektuari jagokon tramite guztia.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa: 11 de noviembre de 2008

ABIERTO EL PLAZO DE PRESENTACION DE ENMIENDAS AL PROYECTO DE PRESUPUESTOS DE BIZKAIA PARA 2009

Finaliza el próximo 28 de noviembre

El trámite parlamentario del proyecto de Presupuestos de Bizkaia para el año 2009 continúa su proceso en las Juntas Generales de Bizkaia. Tras las comparencias de los diputados en la Comisión de Hacienda y Finanzas con el fin de informar del presupuesto de sus respectivos departamentos, la Mesa de las Juntas Generales ha decidido abrir mañana, día 12 de noviembre, el plazo de presentación de enmiendas, que finalizará el próximo 28 de noviembre a las 13:30 horas.

El proceso parlamentario para la aprobación de los Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2009, se inició con la entrega del Proyecto de Presupuestos. La Diputación Foral de Bizkaia entregó los tomos del Proyecto de Presupuestos a la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, para su tramitación en la cámara foral.

El trámite parlamentario continuó el pasado jueves 6 de noviembre con el inicio de las Comisiones Informativas. Durante tres días, los diputados han explicado a los distintos grupos de la cámara foral las cuentas asignadas en el Proyecto de Presupuestos de 2009 a cada Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia, paso previo a la apertura del periodo de presentación de enmiendas.

Una vez presentadas las enmiendas, cuyo plazo concluirá el 28 de noviembre, la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia procederá al análisis de las mismas como paso previo a la convocatoria de una sesión plenaria, que se celebrará ya en diciembre, para debatir



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

las enmiendas a la totalidad. Tras este pleno, en su caso, se debatirán las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite parlamentario finalizaría con un nuevo pleno, previsiblemente a finales de diciembre, que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Hacienda y Finanzas.